


Hurrengo taulan, establezimendu bakoitzak sektore osoan dituen ehunekoak zehazten dira, baita beheko establezimenduek merkataritza elektronikoaren bidez hilean dituzten salmenten ehunekoak ere mila eurotan neurtuta.

Mota	Ehunekoa sektorean	Posta elektronikoaren bidezko salmentak, mila eurotan
A	25%	12.785
B	44%	8.756
C	31%	16.865

Banda zabalaren bidez konektatuta dagoen establezimendu kopurua % 12 gehitu da azken urtean; aurtan 25.300 daude egoera horretan.

Hurrengo puntu-hodeian "a" eta "b" aldagaien arteko erlazioa erakusten da.



1/ Sektore honetan merkataritza elektronikoaren bidezko salmenten batezbestekoa honakoa da:

- a) 12.832 mila euro
- b) 12.277,04 mila euro
- c) 13.562,43 mila euro
- d) 8.765,44 mila euro


2/ Zein da, orduan, aurreko urtean konektatuta zegoen establezimendu kopurua?

- a) 24.000
- b) 23.000
- c) 22.000
- d) 21.000

3/ Aztertu grafikoa eta esan beheko esaldietatik zein den egia.

- a) Korrelazioa ahula da.
- b) Korrelazioa handia eta negatiboa da.
- c) Erlazioa funtzionala da, $a = k \cdot b$ motakoa.
- d) Korrelazioa handia eta positiboa da.

Beheko puntu-hodeietan ondokoa ikus daiteke:
 - ezkerrekoan, "a" eta "b" aldagaien arteko erlazioa.
 - eskuinekoan, "c" eta "d" aldagaien arteko erlazioa.



Hurrengo taulan, aipatutako aldagaiek 2001 eta 2008 urteen artean izan duten bilakaera ikusten da.

Elikagaien industria (%)

	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008
Ordenagailu pertsonala	49,0	48,3	53,2	54,6	58,5	66,9	63,6	64,6
Posta elektronikoa	15,8	27,7	32,8	31,7	41,0	46,6	47,9	52,8
Internet	21,4	33,0	40,9	40,4	47,0	53,9	55,4	56,9

4/ Aztertu grafiko biak eta esan beheko esaldietatik zein den egia.

- a) Ezin dira konparatu elkarrekin dituzten erlazioak.
- b) Ezkerreko grafikoko aldagaiek erakusten duten korrelazioa eskuineko grafikokoan dagoena baino sendoagoa da.
- c) Ezkerreko grafikoko aldagaiek erakusten duten korrelazioa eskuineko grafikokoan dagoena baino ahulagoa da.
- d) Eskuineko grafikokoan ikus daitekeen korrelazioa negatiboa da.

5/ "Ordenagailu pertsonalaren erabilera" eta "posta elektronikoa erabilera" aldagaien arteko korrelazio-koefizientea hau da:

- a) Negatiboa.
- b) Positiboa.
- c) Ezin da jakin.
- d) Ia zero.

6/ "Ordenagailu pertsonalaren erabilera" eta "Interneten erabilera" aldagaien arteko korrelazio-koefizientea hau da:

- a) 0,15
- b) 0,93
- c) 0,87
- d) 0,65

7/ "Ordenagailu pertsonalaren erabilera" eta "Interneten erabilera" aldagaien arteko korrelazio-koefizientea hau da:

- a) Negatiboa.
- b) Ezin da jakin.
- c) 1
- d) Positiboa.

Demagun bi aldagaien arteko korrelazio-koefizientea negatiboa dela.

8/ Bi aldagaien arteko korrelazio-koefizientea negatiboa bada...

- a) Erregresio-zuzena beherakorra da.
- b) Erregresio-zuzena gorakorra edo beherakorra izan daiteke.
- c) Erregresio-zuzena gorakorra da.
- d) Erregresio-zuzena X ardatzarekiko paraleloa da.

Frogatzen da autobidearen erabileraren eta zirkulazioko istripu kopuruaren artean korrelazio-koefiziente handia eta negatiboa dagoela.

9/ Honakoa baieztatu ahal izango dugu:

- a) Ez dago istripurik autobidean.
- b) Zenbat eta gehiago erabili autobidea orduan eta istripu gehiago dago.
- c) Zenbat eta gehiago erabili autobidea orduan eta istripu gutxiago dago.
- d) Datu horrekin ezin da baieztatu autobidearen erabileraren eta istripu kopuruaren arteko erlazioa.

10/ Zure ustez zein da segurtasun-uhalaren erabileraren eta istripuen larritasunaren arteko korrelazioa?

10/ Zure ustez zein da segurtasun-uhalaren erabileraren eta istripuen larritasunaren arteko korrelazioa?

- a) Handia eta positiboa
- b) Handia eta negatiboa
- c) Txikia eta positiboa
- d) Txikia eta negatiboa

Testaren zuzenketa:

10.b
9.c
8.a
7.d
6.b
5.b
4.b
3.d
2.c
1.b